

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Joan den irailaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, zeinak barne hartzen baititu honako hauen kontuak: BFA, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Foru Erakunde Autonomoa (GOFE) eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten 17 erakundeak.

HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du **Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten entitateen Kontuei dagokienez**, batere salbuespenik adierazi gabe.

Txostenak aztertu du fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **finantza egoera** eta 2017ko abenduaren 31n finantza egoerak onera egin duela azpimarratu du, **sarrera arruntek nabarmen egin baitute gora** aurrekontuan jasotako sarreraren aldean. Gainera, gastu arruntaren exekuzioa kreditu osoa baino txikiagoa izan da. Hori dela eta, ekitaldiko eragiketa arrunten emaitza 186.367mila euro izan da (kanpoan utzi dira Kontzertu Ekonomikoko Batzorde Mistoaren Akordioen ondorioak). **Zorpetzeak**, Enpresa Sektore Publikoa barne hartuta, 40 milioi euro egin du behera.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena BFAk Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zien eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Bai Aldundiak, bai GOFE eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten entitateek **zuzentasunez bete dute** ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko ez-betetzeak azaleratu diren **langileen eta kontratazioaren** ataletan; langileen atalean PFEZtik salbuetsitakotzat jo dira BFAk ordaindutako hainbat sari eta kalte-ordain, Langileen Estatutuak aurreikusten dituen arrazoiak baieztatu gabe; Seed Capital de Bizkaia SAn kontratu mugagabea egin da lanpostu hutsik izan gabe; kontratazioaren atalean, berriz, Enpresa Sektore Publikoko zortzi entitatetan, 1,8 milioi euroren erosketak egin dira publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe; Enpresa Sektore Publikoko bi entitatek kontratuak esleitu

dituzte erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuen prozedura eta publizitate arauak bete gabe, guztira 0,7 milioi euroren zenbatekoan; Garbiker SAn esparru akordioa luzatu da iraungipen epea gaindituta.